

Amatasuna deseraiki, amatasunak eraikitzeko

AINARA GOROSTIZU

Amatasunak eta feminismoak eztabaidaz beteriko harremana izan dute Euskal Herriko genealogia feministan ere. Ainara Gorostizu Hik Hasiko kazetaria da, pedagogiaren inguruan argitaratzen den aldizkari euskalduna. Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan parte hartu ostean egindako hausnarketan feminismoaren barnean amatasuna lantzeak dituen gazi-gozoak ekarri dizkigu.

Bakardadea, zaurgarritasuna, juizioa, autoexijentzia, beldurra, presioa, errua, isolamentua... hitz horiek, eta gisakoak aukeratu zituzten Durangoko Topaketa Feministetan Amatasun praktika errealak gaur egun Euskal Herrian tailerrear elkartu ziren emakume askok ama izatean sentitu zutena deskribatzeko eskatu zitzaizkien. Bakardadea, errua eta autoexijentzia, letra larriz. Izan ziren beste tonu batekoak ere: sormena, ahalduntzea, maitasuna, berkokatzea... baina berba grisen aldean bakanak ziren bigarren multzokoak. Ama izan eta bat-batean zulo batean erori izana kontatu zuten emakume askok. Min, nahigabe eta erresumin asko okaztatu zuten. 2019ko azaroaren 2an.

Patriarkatuak eraiki duen amatasunaren irudia irentsi dugu feministok ere

Feminismoak orriak eta orriak eta orriak idatzi ditu amatasunaz. Hain justu, patriarkatuaren enpeñoa izan delako emakumearen izate osoa amatasunera mugatzea, eta beraz, kate horretatik askatzea izan da feminismoaren borroka handietako bat. Hona gure aitortza. Baina orri horiek guztiak ez dira aski, ez dira nahikoa zeure haurra besoetan hartzean maldan behera zulora ez erortzeko. Krak. Saihetsean kolpe bat. Krak. Zulora. Patriarkatuak eraiki duen amatasunaren irudia irentsi baitugu feministok ere. Eta, bat-batean, ordura arteko bizitza ez dugu aurkitzen, ordura arteko ni, ordura arteko gu, ordura arteko denbora eta espazioak. Krak. Haur bat izan nahi genuen, baina ez genuen ama izan nahi.

Hiru letra horiek zurruneziak, astunegiak, zamatsuegiak, lotuegiak, zaharregiak, mendekoegiak, isolatuegiak idazten ditu patriarkatuak. Ama izateko modu bakarra ikusarazten zaigu, etxeo aingerua, kexatzen ez dena, denera iristen dena... eta gehiago ala gutxiago, txikitatik zainetan daramagu

ama onaren ideala. Baita feministok ere. Ama izatean, hain justu, krak egiten diguna.

Sistemak hauspotzen duen amatasun hegemonikoa suntsitzeko premia larrian eta amatasun praktika bizigarriagoak egiteko borrokan

Esan zuen Adrienne Richek 1976an. Amatasuna instituzio gisa eta amatasuna praktika pertsonal gisa bi plano desberdin direla. Eta hor jarraitzen dugu: sistemak hauspotzen duen amatasun hegemonikoa suntsitzeko premia larrian eta amatasun praktika bizigarriagoak egiteko borrokan. Horra feminismoek amatasunen gaian, bi planotan, gaur eta hemen, oraindik irabazteko dituzten esparruak.

Amatasunak eta feminismoak pluralean konjugatu behar dute. Amatasuna deseraiki behar dugu amatasunak eraikitzeko. Feminismoetatik arrakalatu behar dugu instituzioa, seme-alaben zaintzaren balioa ikusaraztean izango dira gure praktikak askatzaile. Horretarako feminismoetatik zaintzaren garrantziaz egiten ari diren



María Llopis, Maternidades Subversivas (Txalaparta, 2015)

teorizazio eta praktketan amatasunak ere aintzat hartu behar ditugu. Eta, era berean, feminismoen espazioan antolatu behar dugu amok, Euskal Herriko mugimendu feministaren barruan, amatasuna politizatu eta gure ezinegonak, minak eta nahigabeak dagozkionari exijitzeko, jatorrira itzultzeko, hau da, sistemari itzularazteko. Sistema honetan ezin baita ama sano izan. Ikusarazteko zaintza ezin dela emakumeen bizkar utzi; zaintza eta lan merkatu hau ez direla bateragarriak; zaintzarako bestelako baimen-eredu bat behar dela; zaindu egin nahi dugula; zaintza ezin dugulako haur-eskoletan hezkuntza-sistema osoko baldintzarik okerrenetan dauden hezitzaileen bizkar utzi, ezta

euren seme-alaben zaintza itsasoz bestalde, beharturik, utzi duten emakumeen prekaritatearen bizkar ere. Krak, krak, krak, sistema da zulatu behar duguna.

Amatasunen praktika eraldatzaile, asegarri eta bizigarriak erakutsi eta partekatu behar ditugu. Gozamenetik eraiki amatasunak.

Bitartean ereduak behar ditugu, arnasa. Amatasunen praktika eraldatzaile, asegarri eta bizigarriak erakutsi eta partekatu behar ditugu. Gozamenetik eraiki amatasunak. Amatasunaren

eredu hegomonikoak ito egiten gaituelako emakume guztiok, den-denok, aukeratzen dugun praktika aukeratzen dugula ere, zaintza delegatzea edo beste muturrean, zaintzara ematea erabakitzen dugula ere, guztiok gaude epaiaren eta erruaren jomugan. Oinarrietan baikaude oraindik, biberioa ematen duen ama kuestionatuz, ojo! titia luze ematen duena kritikatzuz, hara! exigentziaz, kulpaz, bakardadez zamatzuz amatasuna.

Zaintzaren balio ekonomiko, sozial eta politikoa aitortzen hasten garenean izango dira gure amatasun praktikak benetan askatzaile eta asegarri. Zuloa estali behar dugu.